



MUSIKA

Bloñ, absurdoaren eta poetikoaren erdian

XALBA RAMIREZ

Urtebete lan kapituluko telesaila egitea nahikoa lan ez zela pentsatuta abiatu zen Bloñ proiektua. *Bañolet* telesailako zuzendariak, gidoia, zuzendaritza, produkzioa eta muntaia egiteaz gain, soinu banda egitea deliberratu zuten. Eta soinu bandarekin, diskoa, eta diskoarekin etorriko dira kontzertuak eta saltsa gehiago.

Saltsa zaleak baitira Paxkal Irigoien eta Maia Iribarne, oso-oso zaleak. Lanez lepo zeuden garaian hasi ziren soinu banda konposatzen. Goizetan entseguak, eta arratsaldeetan kapituluaren muntaiak, ordenagailu parean. Zentzu horretan, *Bloñ. Bañolet kantuz* plazeretik egin den lana da, bi musikarierik natural zaien eremuan.

Abiadura bizian konposatu eta grabatu zituzten kantok, letrak egunean bertan idatziz, estudioan, edo estudioa bidean. Eta hori da harrigarriena. Talde askorentzat urteetako lana izan dena, aste

batzuetan burutu dute baxenabartarrek, Nicolas Armendariz bateria eta Allande Etxeberri baxua lagun.

Estiloa? Popa dela jartzen du Badok web-orrian. Ez dakit, irri egiteko, edo besterik gabe gaur egun dena delako popularra. Edozein kasutan, estilo nahasketak aski aberatsa da, inongo moldetan sartzen ez dena. Hori guztia baxenabartarrek hainbeste maite duten surrealismo gatz puntuak lagunduta. *Arrarokeria* ez al da musika estilo bat?

Kikerak kanta bizkorra, amaieran film baten pausa dramatiko epiko eta guzti. *Han*-en harritu gaitu Ane Garciak kantatutako melodia ederrak -Habiaren *Urre handia*-ra eraman nau hasierak, Pixies-en *Where is my mind?*-era amaierak-. *Eihera* kantua, Iribarneren ahots loop trantzearekin. *Erbiak*-en Airbnb-ren homofonia aprobetxatuz: *Erbien bi lagun sutan, bum ba bum ba ba ba bum!*



BLOÑ. BAÑOLET KANTUZ BLOÑ

XOFALDIA PRODUKZIOAK, 2021

“Absurdoa” hitzarekin definitu omen dute telesailaren eta diskoaren espiritua. Jokoetatik abiatuta, beti ere. Absurdoa eta poetikoa nahasten dituztela sentitzen dute. Ezin da hobeto deskribatu jarrerara. Lehen aipatutako *arrarokeria* ez delako, inondik inora, *eusnob* jarrerara, handik eta hemendik bereizteko egindako harrokeria, lurreko eta urmaeletako animalia txikiekin, narrastiekin eta gau-tarrekin bat egiteko manifestua baizik.

Iribarne-Olhagaraitarrek urte ederra eman digute. Diabolo Kiwi, Habia eta Bloñ taldeekin urteko hiru disko berezienak kaleratu dituzte Leire eta Maia ahizpek, nork bere bidetik, musikaren iturri zabala hedatuz. 2022ak emango duenaren zain.

P.D.: Badok-en baino ez duzu izango entzuteko aukera, ez spotifyn, ez bandcampen. Edo CD zahar horietako bat eros dezakezu, nonbait topatuko duzu non erreproduzitu. Bide batez, *Bañolet* telesailak 2021eko Durangoko Azokako Sormen Beka irabazi du eta martxoan ikusteko moduan izatea espero da. ●



Maia Iribarne eta Paxkal Irigoien *Bloñ. Bañolet kantuz* diskoaren egileak.